

«ISILEAN» PROIEKTUA

Etxeko lanak jarduera duin eta eder gisa, baita gizontzeko eskola gisa ere



 **KULTURA** / Maider Iantzi Goienetxe

Pello Ulaziak hamar urtez etxeko gizon gisa bizitako esperientzia islatu du artearen bidez. «Isilean» izenburua jarri dio erakusketari, inork pentsa ez dezan gizonezko batek hasi behar izan duela jarduera hauetan duten balioa aldarrikatzeko. Esker txarreko lanotan isil-isilik aritu direnak eta ari direnak omendu, eta isil-isilik etxean sartzera animatu ditu gizonak.

Aurrena Andoainen eta orain Mutrikun (azaroaren 6ra arte) irekitako “Isilean” Pello Ulaziaren erakusketa bisitatu dutenen artean denetariko komentarioak aditzen dira. Batzuek diote beraien ez direla gai etxe barreraren halako gauza ederrak ikusteko. Bertzeek, emakumeek, erraten diote inoiz ez diotela aitortu egin duten lan guztia eta aunitz pozten direla behingoz baten batek baloratu dituelako.

Beldurrak ere azaldu dizkiote, neskek ere bai, karrera bat ikasi eta ez dagoelako ongi ikusia etxean gelditzea. Zenbait gizonezkoek aipatu dio bere egoera bera bizi izan duela eta kanpoan erdi-isekak, erdi-txantxak jasan izan dituela.

Guk, garbi usaina sumatu dugu. Argazki, eskultura eta ikus-entzunezkoekin, giro txukuna

eta intimoa lortu du artista mutrikuarrak, Jabier Muguruzaren “Aitarekin bidaian” abestiarekin girotua.

Lanez lan itzulia egin aitzinetik, proiektuaren sorburua esplikatuz digu Ulaziak: «Orain ez hainbeste, baina lehen oso bereizita zegoen gizartea: publikoa gizonena zen eta beren lana ikusi egiten zen; pribatuan, etxe barruan, oster, emakumeak gelditzen ziren. Emakumea lan mundura sartzen da, baina paraleloan gizonazkoa ez da sartzen etxe barrura. Ondorioz, emakumeek lanaldi bikoiztua sortzen zaie, eta etxean beti egon izan den amaren irudia desagertzen da, erreferentzia afektiboa galtzen da, etxeak hustu egiten dira».

Familia izan zuenean, konturatu zen gauzak ez zeudela ongi: «Soluzioa ezin da izan txikiak haurtzaindegian aparkatzea edo zaharrak edo mendekotasuna duten pertsonak egoitzetan. Bizitzak beste karga etiko goxoago bat izan beharko luke. Orduan, bikotekideak eta biok erabaki genuen ni etxean geratzea».

Hasieran gogorra egin zitzaion. Jendeak erdi-iseka egiten zion: «Hi bizi haiz hi!». Kanpoan erosketetan zebilenean ea oporetan al zegoen galdetzen zioten. Ez zuten ulertzen. Eta alde horretatik etxea kartzela ere bihurtu zitzaion.

«Baina poliki-poliki zeu ere indartzen joaten zara eta konturatu zara zelako baloreak hasten zaren barneratzen. Sentikortasunaren kontzientziaren eskola bat da. Pediatrara joateak, ikastolako guraso elkarteetan sartzeak, umeak elikatzeak... beste jakintza sentikor bat ematen dizu».



Ezkerrean, autoerretratua eta «Garbigailua» eta «Bitsa» ikus-entzunezkoak. Irudi handian, ontziekin eta arroparekin egindako eskulturak.
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



**«Seme-alabak
jasotzen
nituenean
txiribuelta
batekin hartzen
nituen hirurak.
Bizitzaren
metafora da.
Guk non heldu
eskaintzen diegu,
baina txiribuelta
beraiek eman
behar dute»**

usain hori topatu arte». Maindi-reen zimurdurak ageri dira, lisatutako zapia, hautsa kentzeko trapua, fardelekin sortzen diren arkitekturak... Bakoitza bere iza-era naturalean agertzen du.

«Eskulturak beste berezitasun bat dauka: existitzen ez dena sortzeko aukera ematen dizu. Etxeko jarduerak askotan ez du- te testigantzarik uzten. Bakar- bakarrik ikusten dugu zerbait falta denean edo zikina dagoe- nean. Amak bazkari goxo bat egin, muturrak garbitu eta esan ere ez diogu egiten sarri. Nola ez den testigantzarik gelditzen, adibidez jatekoekin gauza efi- mero hori finkatu nahi izan dut, ontziak hormigoiz betez, begira- da berri bat sortzeko».

Bertze jardueretako bat igan- de arratsaldeetan arropa toles- tea izaten zen. Brancusiren “Zu- tabe amaigabea” lanaz oroituta, gero eta zutabe luzeagoak egin zituen, testurak eta koloreak zainduz eta eskultura bihurtuz.

Autoerretatutan, biberioia gal- tzontzilotan era erradikal bate- an agertuz, aitatasunak daka- rren konpromisoa azaldu du, baita esperientzia ahaztezinak ere. «Aita etxean gelditzeak ez du esan nahi ama izan behar duenik. Aita aita da».

Ikus-entzunezkoak ere ildo beretik doaz. «Ikastolara joaten nintzenean seme-alabak jaso- tzera, txiribuelta batekin har- tzen nituen hirurak. Bizitzaren metafora da. Guk non heldu es- kaintzen diegu, baina txiribuel- ta beraiek eman behar dute».

“Garbigailua” bideoak etxeko erritmo geldoa transmititzen du, eta, “Bitsa”-k, su gaina garbi- tzeko uneko jolasak. Xaboiare- kin marrazten hasi eta hondoa bi dimentsiotatik hirugarren di- mentsiora pasatzen da. Aitaren eta amaren telazko mukizapiek, aldiz, bizitzeko era bat islatzen dute, garbitu eta mantentzea, goxotasuna, «bizitza azkar ho- netan pixka bat galdu duguna».

Hala, esperientzia aberasgarri hori artearen bidez islatzea era- baki zuen. Bide batez, aitatasu- naz, maskulinitateaz eta etxeko espazioaren dimentsio politiko- az hausnartuz. «Oteizak zioen artea egitea kontzientzia hartze- ko eskola politikoa zela. Etxe ba- rruko jarduerak ere hala dira, beste izaera sentikor bat, beste gizonezko bat eta gizarte pareki- deago bat eraikitzeako eskola».

OBJETUEKIN IZANDAKO ERLAZIOA

Arte feministaren lekukoa har- tuz (pertsonala politikoa da), etxeko ate eta leihoak ireki, eta barreneko objektuekin izan duen erlazioa aurkeztu du. Plas- tika erabili du jarrera etikoak es- tetika bilakatzeko.

Argazkietan etxeko egunero- ko jarduneko gertakizunak isla- tu ditu: gauzek zahartzen doa- zen heinean hartzen duten edertasuna, plateren apurketak, erabiliz goxatzen eta borobil- tzen doazen Txinbo xaboiak... «Aita, basoa apurtu da!», abisa- tzen zioten umeek, eta kamera- rekin harrapatzen zuen. Ohea egitean izarak zabaltu eta gela argitzeak liluratzen zuen. Baina ez zen beti hala izan. Hasieran gorroto zuen ohea egitea. «Pro- zesu bat pasatu nuen edertasun hori, bikaintasun hori, garbi